

ZENBAT BURU

Ion Garate

ERREPORTAIA

Euskararen transmisioa indartzeko kanpaina

BARRREN

1998ko urriaren 2a
V. urtea - 250. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

UDALETXETIK

GEHIGARRIA

KULTURA

Errorario kaleko
jaietako Salbea

Urriak 4, domeka

Artzai txakurren
txapelketa

Artzao baserriaren
alde



“Mundu honetan gauzek ez dute bueltarik norbaitek ez baditu mugitzen” Garfield

KRANDEL ♀

OIHALAK, LENTZERIA eta MERZERIA

Rosario, 8 · Tel. 943 74 35



ORAIN haur jaio berrietatik
hasi eta adin guztientzat
barruko arropak eta Pixamak



KUKUBILTZO



KUKUBILTZO



ANTOLATZAILEAK:


Elgoibarko
Euskara Batzordea



Elgoibarko
Udala

NOIZ
urriak 3, larunbata
NON
Foruen Plazan
(auria egingo balu,
Herriko Antzokian)

ORDUA
17:00



ION GARATE

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Udazkeneko gogoetak

Eguerdia da. Leihotik kanpora begiratu duzu, ezer ikustea lortu gabe. Kristala lainoturik dago; esku ertzarekin hezetasun geruza ezaba dezakezu. Horrelaxe. Kanpoan, behelainoarekin batera isiltasun lodi bat pausatu da herriko teilatuetan. Enara beltz baskarti bat, arbel koloreko zeruan noraezean. Haize izoztu batek orrazturiko mendietan, landareak lanbroaren zamapean makurtu dira.

Oso behean, herriaren sakoneran, giza errekek kaleak betez. Goitik, kolore guztietako aterkiak antzematen dituzu. Perretxiko ibiltariak dirudite. Elkarren ondoan dabiltzan ezezagunak. Gorputzak ia elkar ukitutuz, baina kontaktu oro saihestuz eta burumakur. Bakar-dadean murgildurik. (Eguraldi maxkala, e? ¡Pues sí, chica, al supermercado vamos!)

Kanpai hotsak iritsi zaizkizu urrunetik. Elizan hamabietako meza hastera doa. (*Zaatoz Jauna, zatoz lurreraa...* Oroitzen duzu nola aldamenekoari bostekoa ematerakoan urduri jartzen zinen, eskuak izerditurik izango zenituen beldur). Edo agian hileta bat ospatzeaz dago, eta apaiza duintasun handiz mintzatuko da heriotzaren ondorengo bizitzaz. Zuk, ordea, ez duzu betikotasunean sinestea lortzen, saiatu arren. Zorabiatu egin ohi zara zure existentziaren azken muga imajinatzean. Betirako ezerezak irentsiko zaitu, oroitzapen gozoak ere lapurtuz. Baina etzazu horretan pentsa. Badakizu, *Carpe Diem*.

Apaiz burusoil edo ile txuri, ihar edo gizen, garai edo txiki bat. Aulki denak fededunez gainezka. Organoaren musika eta intentsu usaina. Miragarria da zenbat pertsona biltzen dituen erlijioak. Eta dena gezurra balitz? Alferrikako muntaia erraldoi bat? Be-

harrada gizakia izan zen Jainkoak sortu zituena, mundu ezezagunari azalpenak emateko, segurtasuna lortu nahian, eta baita hainbat zapalkuntza justifikatzeko ere. Zorionekoak, galdetu gabe sinesten dutenak.

Burutazio hauek baztertu nahi dituzu. Zure bizitzari errepara iezaiozu. Ziurraski gustura zaude bizitakoaz, eta badauzkazu etorkizunerako proiektu batzuk buruan. Baina denbora azkarregi doa, hatzamar tartetik ihes egiten dizu bizitzak, segundoz segundo, gero eta arinago. Ikaraz ohartzen zara nola erortzen diren urteak, udazkeneko hostoak bezain prestu. Eta jada ez zara horren gaztea. Eta ez duzu zahartu nahi, zaharrak marjinatu egiten baititu gizarteak. Gazterik hiltzeari ere ez deritzozu bidezkoa, ordea. Bidegurutze batean zaude, baina ibilbidea aurrez markatu dizute.

Itxaropenari bidea ireki behingoagatik. Mundu honetan ez dago dena galduta. Giza baloreak. Laguntasuna-maitasuna-tolerantzia... Idealak. Ametsak. Irten zaitezke kanpora beren bila. Hala ere, zuk zure unibertsioan isolaturik jarraitzen duzu. Bakardadea duzu adiskiderik minena. Horregatik, izaki arraro bat izatera kondenatua zaude. Baina hor behean, kalean, dendetan, tabernetan mekanikoki dabiltzan gizaseme (edo automata?) horiek ere bakardade ezberdinen batura tristea baino ez dira.

Begiak nekatu zaizkizu dagoeneko. Konturatzerako, gauaren iluntasuna eguzki ahula estaltzen hasi da. Musika goibela jarri duzu entzungailuan, eta ohean etzan zara, poema liburu bat eskuartean. Benetan gorroto duzu udazkena. Errealitatea hain iruditzen zaizu ulergaitz eta bihozgabea urtaro honetan!

Barreak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loidola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Aitor Viñaras

Joan den ostiralean Aitor Viñarasek azkenengo aldiz egin zuen dantza Haritz Taldekookin. Norbaitek ez badaki zein den Aitor Viñaras, nik ez dakit azaltzen. Nik dakidana da, zelako pena handia eman didan Aitorrek taldea laga behar izateak.

Aitor moduko puntako dantzari batek gauza on asko ditu eta oraingotan pare bat gauza bakarrik agertu nahi nituzke. Bata, zehastasuna. Bai, oin puntetan eta erremintekin elkarri jotzeko dantzetan ere, zein da Aitor bezain bizia eta segurua? Gure aitaren esateko modu zorrotza da, "zihatz, tak", indar eta balio handia ematen diona. Bigarrena, neska-mutilen dantzetan neskarekin egiteko gustoa litzateke, neskatan egiteko, horrela esan badaiteke behintzat, horrexetarako izan behar omen du-eta (beste funtzio batzuekin batera) dantzak. Gaur egun, oster, dantzan asko ligatzen ote den edo, beste kontu bat da. Aitorren arintasunaz edozein neskak hitz egingo dizu eta haren alai izateaz, berriz, nor nahik: kolore gorri-gorriok eta hain berea duen bi kolpeko barre-hotsa "je-je", "je-je", ez ditu une honexetan bertan ere lar apartean izango.

Baina kategoriako dantzaria eta lagun sanoa izatea asko bada ere, ez genuke Aitor erdia ixtimatuko den bezain umila eta mutil noblea izango ez balitz. Horixe da Aitor, eta horixe ikasi nahi izan diogu, entsaioa entsaioaren atzetik eta dantzen euren gainetik. Chapeau, Viño!

Besteok jarraituko dugu astearte eta ostiralero Kiroldegira joaten (heu ere agertuko haiz oraindik, akordatu hadi honekin) eta arrazoi askorengatik gainera, baina Aitor Viñarasek utzita, neuk behintzat, bat gutxiago daukat.

Taldekode bat

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

KEXAK

◆ Emakume bat oso haserre etorri zaigu joandako zapatu arratsaldean Parrokiko atariak zuen egoera dela-eta. **“Lotsagarrixa da Parrokiko portikuetan zauan usaina eta zikin-kerixia. Gaztiak jaten eta edaten egoten diaz, txiza ere eitzen dabe eta zakarrak zakarrontzira bota biharrin lurrian lagatzen dabez.** Elizara juten geranoi lotsagarrixa iruditzen jaku egoera honen aurrian inok ezer ez eitxia. Ezin leike holako irudi lotsagarrixa eman. Norbaitxek zeozer ein biharko leuke”.

◆ **San Pedro auzoko bi neskatok bertako etxeen ondoan dagoen parkea oso hondatuta dagoela esatera etorri dira. “Kolunpioak eusten dituzten makilak erabat okertuta daude eta ezin da kolunpioetan ibili oso arriskutsua baitago.** Herriko parkeak egoera hobean daude baina San Pedrokoei ez digute kasurik egiten, inor ez da arduratzen parkearen egoeraz. Gainera, belarra oso hazita dago eta inor ez da belarra mozteaz arduratzen. Guk ere gainontzeko herriko umeek bezala ganorazko parkea edukitzeko eskubidea dugu”.



TXALOAK

◆ Herriko itxurarekin arduratuta dagoen elgoibartar batek deitu digu honako txalo hau argitaratzeko eskatuz: **“Gorbea tabernaren gainean bizi diren bizilagunak txalotu nahi ditut erreka aldera ematen duen fatxada benetan polita laga dutelako.** Ea beste etxeetakoak ere animatzen diren eta Udalak laguntzak eskaintzen dituen”.

BAI, ESAN?



Juana Barrutia

HAIZEAKO kidea

Aste honetako telefono deiaren arrazoa emakumezkoak dira. Izan ere, aurreko egunetan emakumeak protagonista izan dira hainbat arrazoirengatik. Guk bi arrazoi aukeratu ditugu; abortoaren legea zabaltzeko saiakera bata, eta emakumeak jasaten dituzten tratu txarrak, bestea, Bi gai hauen inguruko iritziak jaso nahian, **Haizea Emakume Taldeko kidea den Juana Barrutiari** deitu diogu. Ikus dezagun zer esan digun.

- **Zer lortu nahi zen abortoaren legea 4. kasura zabaltzeko proposamenarekin?** - Gure ustez, emakumea bera da gai honi buruz erabakia hartu behar duena. Horretarako oinarritzkoa da bere esku jartzea beharrezkoak diren irtenbideak eta baliabideak.

- **Hurrengo belaunaldiak abortoaren legeaz lotsatu egingo direla esan zuen Elizak bozketaren aurretik. Zer pentsatzen duzue honi buruz?** - Gure ustez bada-go, nolabait esateko, itxurakeria apur bat. Historian zehar beti egon izan dira abortuak eta kasu gehienetan baldintza oso eskasetan egin izan dira. Gure iritzi legeak eman behar ditu arazo hau konpontzeko soluzioak, gaur egun oraindik oso gaurkoa baita abortoaren arazoa.

- **Bigarren gaiari helduz, oraindik ere notizia dira emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak.**- Oso garrantzitsua da tratu txarrak jasaten dituen emakumeak salaketa egitea. Honez gain, legeak askoz gogorragoak izan beharko lirateke. Zigorrek oso-osorik be-tearazi beharko lirateke. Emakumeentzako babes handiagoa eta laguntza gehiago egotea beharrezkoa dela deritzogu.

- **Kasu askotan tratu txarrak emakumeek ere justifikatzen dituztela esan zuten irrati batean.** - Emakume askok pentsakera matxista dute oraindik eta oso zaila da pentsakera hau euren buruetatik desagertzea. Zorionez, gero eta gutxiago dira pentsamolde matxistak dituztenak.



I. URTEURRENA

1997ko urriaren 13an, 71 urte zituela hil zen
JESUS UNZILLA AGIRRE en oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako Elizan
larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:30ean.
Joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



EUSKARA

BELAUNALDIZ BELAUNALDI

*Euskarak iraungo badu, ezagutza eta erabilerari esker izango da, eta zeregin horretan ezinbesteko pape-
ra betetzen dute eskolak eta guraso-
ek. Izan ere, neska-mutilek txikiak
direnean jaso eta entzuten duten
hizkuntza izango da neurri handi
batean gerora erabiliko dutena.
Euskararen transmisioak duen ga-
rrantziak ohartarazteko helburua-
rekin antolatzen da urtero "Trans-
misio Kanpaina". Elgoibarko Uda-
lak, euskaltegi eta ikastetxeekin el-
karlanean dihardu eta, besteak bes-
te, ikastaro bereziak eta haurrei es-
kainitako antzerkia antolatu dituzte
aurten. Kanpainaren berri emateaz
gain, bi senar-emazterekin izan ga-
ra bakoitzak bere esperientzia azal
diezagun.*

Sarreran esan bezala, euskararen biziraupena eta normalizazioa bermatzeko familia eta eskola ezinbestekoak dira. Hau da, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da gaztetxoek euskara erabiltzeko modu seguru eta naturalena. Horregatik, oso garrantzitsua da euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta transmisio hori ziurtatu eta indartzea. Gogoan izan behar da, gainera, euskarak gaztelania-
rekin bizi behar duela eta egoera mino-
rizatuan dagoela. Horregatik, euskara erabiltzeaz gain, euskara maila ere ona izaten ahalegindu behar dugu.

Zoritxarez, gaur egun ez da nahi edo behar beste euskara erabiltzen, eta egiten dena askotan kaxkar samarra da. Zergatik gertatzen den hori? Zenbait egoeratan eta zenbait gairen inguruan euskaraz hitz egiteko ohitura eta gaitasunik ez dauka-
gulako; kontzientzia eta motibazio falta dugulako eta euskaldunen dentsitatea ez delako behar bestekoa. Beraz, euskara gehiago eta hobeto erabil dadin, beha-

GURASOENTZAKO
EUSKARAZKO KLASEAK

CURSOS DE EUSKERA
PARA PADRES Y MADRES



98-99 IKASTURTEA
CURSO 98-99



Elgoibarko Udaia. Eustara Btzordes.
Ayuntamiento de Elgoibar. Comisión de Euskera.

rezkoa da sentsibilizazio kanpainak, hizkuntz trebakuntza, eskolaz kanpoko ekintzak eta abar antolatzea.

Beraz, gurasoek beraien seme-alabei behar bezalako euskara transmititu nahi badie, eurek ere maila ona izan behar dutela garbi dago. Horregatik, euskaltegiek gurasoei zuzendutako ikastaro bereziak antolatzen dituzte "Euskararen Transmisio Kanpaina" delakoaren barruan.

Kanpaina horrek hiru multzo desberdintzen ditu. Alde batetik, euskaraz ondo moldatzen diren euskaldun zaharrei zuzendutako ikastaroak daude. Bigarrenik, euskaraz hitz egiteko errazta-

suna galdu duten euskaldun zahar eta oraindik nahikoa gaitasun lortu ez duten euskaldun berriei zuzendurikoak ditugu. Eta, azkenik, euskaraz gutxi edo oso gutxi dakitenei zuzenduak.

✓ Sakontzen

Eguneroko bizitzan ahozko harremanak euskaraz normaltasun osoz izateko gai direnei zuzendua dago. Euskaldun zahar hauen kasuan motibazioa landu behar da euren seme-alabekin, lagunekin eta bikotearekin euskaraz hitz egin dezaten. Horrez gain, euskararen ezagupen osoa izan dezaten, alfabetatze klaseak jaso behar dituzte, edozein unetan euren seme-alabei eskolako lanak egiten lagun ahal izateko adibidez.

✓ Lantzen

Euskara piska bat jakin arren, eguneroko bizitzan euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenei zuendua. Helburua, ahozko erabileran gaitasun handiagoa lortzea da.

✓ Euskalduntzen

Euskaraz gutxi edo oso gutxi dakitenei zuzendua dago ikastaro hau. Hauekin jarrera positiboa eta motibazioa landu behar dira.

✓ Ipuin eta kantu moduloak

Sakontzen eta Lantzen ikastaroekin batera bi modulo eskainiko dira. Bata, ipuin kontaketa buruzkoa izango da, ipuinei buruzko hasunarketa egingo delarik, hau da, ipuinak noiz eta nola kontatu, ipuin motak eta abar.

Bestetik, haur jolas eta kantuei buruzko moduloa prestatu da. Kasu honetan, adin ezberdinetako jolasak eta umeen garapena, hizkuntzaren tratamendua, umetako kantuak eta abar aztertuko dira.


GILLERMO VICENTE eta INMA GONZALEZ

**“Euskara ez da hain zaila,
eta polita da”**

Gillermo Vicentek 34 urte ditu eta Inma Gonzalezek 36. Bien ama hizkuntza gaztelania da baina oso gazteak zirenean erabaki zuten euskara ikastea. Izan ere, Gillermok 18 urte zituen eta Donostian Magisteritza ikasketak hasi berri zituen euskaltegian izena-eman zuenean. Asteartean EGAKo azterketa zeukan. Esan zigunez, “gure alabari eskolako lanak egiten laguntzeko erabaki nuen EGA ateratzea”.

Inmaren kasua desberdina da. 20 urterekin hasi zen euskara ikasten, “Euskal Herrian egonik normalena delako euskara jakin eta erabiltzea”.

Gaur egun 9 urteko alabatxoa dute, Iria. Gillermok eta Inmak oso argi izan zuten alabari transmititu nahi zien hizkuntza euskara zela. “Oso garrantzitsua da etxean eta eskolan hizkuntza bera erabiltzea eta guk alabaren hizkuntza euskara izan behar zela erabaki genuen”. Gillermok eta Inmak 15 urte daramatzate elkarrekin, “gaztelania erabiltzen genuen ezagutu ginenean eta gaur egun saiatzen gara ahalik eta gehien egiten euskaraz. Iria aurrean dagoenean beti egiten dugu euskaraz. Ostantzean, batzuetan zaila da hainbat gairi buruz euskaraz hitz egitea, azken batean gure ama hizkuntza gaztelania baita”. Edozein modutan, pozik daude euskara ikasi dutelako, “ez da jendeak uste duen bezain zaila eta gainera oso hizkuntza polita da. Edozein animatzen dugu ikastera. Hasieran korte piska bat ematen du hitz egiteak baina berehala ohitzen zara. Gainera, hemen aukera daukazu erabiltzeko, euskara edonon entzuten baita, telebista dago, liburuak...”. Gillermok eta Inmak euskara batua hitz egiten dute, “baina poliki-polki, Iriaren bidez, gero eta gehiago dakigu elgoibartarrez. Iriak lagunekin elgoibartarrez hitz egiten du eta berak hori transmititzen digu guri. Gurasoek seme-alabei transmititzeaz gain, gure kasuan behintzat, aldeantzikoa ere ematen da”.



JUAN MARI ELUSTONDO eta MAITE EZKIAGA:

**“Komenigarria da
euskal sena duen edonor
alfabetatzea”**

Juan Mari Elustondok 52 urte ditu eta Maite Ezkiagak 49. Biak dira euskaldun zaharrak, hau da, biek etxean txikitatik gurasoengandik jaso zuten hizkuntza euskara izan zen. Halere, Maitek esan digunez, “garai hartan, bai eskolan, lagunekin eta batzuetan etxean ere, erderaz hitz egiten gendun. Beste garai batzuk zian eta euskaraz hitz egitia debekatu zauan. Hala ere, oinarrizko gauzak ez dira sekula ahazten”.

Juan Mari baserritarra da “eta gurian beti ein izan da euskaraz. Garai baten morroi erdeldun bat euki gendun eta harekin derri gor in bihar zan erderaz. Gainontzian euskeraz beti”. Ezagutu zirenean batez ere euskaraz hitz egiten zuten euren artean. Aurretik, Maite gau eskolan hasita zegoen euskara berreskuratu eta indartzeko, “eta gero, Juan Marikbeti lagundu izan ditz asko”. 16 eta 14 urteko bi seme dituzte eta hauei esker ere euskara izugarri hobetu duela aitortzen du Maitek, “etxian bai senarrak eta baitxa semiak ere beti in izan dabe euskeraz eta hori izugarri eskertzen da”. Juan Marik 16 urte inguru zituenean hartu zuen euskal kontzientzia, “konturatu nitzan gure hizkuntzian egoeria ez zala normala. Euskaldunak ginan baina analfabetuak”. Euskal giro eta mugimenduetan sartu zen eta 36 urte zituela EGA ateratzea erabaki zuen, “Euskaltegixan hasi eta EGA etarra naban. Ni oso gustura nao eta laguntza haundixa izan da bai telebista ikusteko eta hitz asko ezagutzeko, irakurtzeko eta baita transmisio arluan ere umie laguntzeko”. Maite ere euskaltegian ibili zen alfabetatzeko, “ez nuan EGA atera ez nakalako mailarik baina neretzako beste defenditzen naiz idazten eta irakurtzen”.




EMAKUMEEI TRATU TXARRAK

Zer egin dezakegu arazo honen aurrean?




BEGOÑA ELIZONDO
41 urte, etxeoandrea

Legeak bere osotasunean bete eta erasotzailea ez utzi aske hain laster. Emakumeek borrokatu behar dute, ze batzuetan onartu egiten dituzte tratu txarrak jasotzea.



MANUEL FERNÁNDEZ
44 urte, espezialista

Lehenago salatu eta zigorrak gogortu. Askotan emakumeak senarra salatzen du baina berehala aske geratzen direnez, errepresaliak gogorragoak izaten dira.



ALBERTO GALINDO
18 urte, arotza

Emakumeek aurre egin behar diote senarrari eta kolperik egon bada salaketa ipini. Nire ustez zenbat eta gogorragoa izan zigorra, hobe.




CARMEN ALAMINO
38 urte, etxeoandrea

Epaileak kasu gehiago egin beharko liguke. Duela urte batzuk horrelako egoera bizi izan nuen eta epaileak ez zidanez kasurik egin, alde egin behar izan nuen etxetik.



LEONOR BOTE
45 urte, etxeoandrea

Gauzak gehiegi okertu aurretik salatu egin behar da. Lege aldetik gauzak ez daude ondo, ze berandu den arte epaileak ez dute ezer egiten.



AGUSTÍN SAN MARTÍN
64 urte, jubilatua

Ez dao horretarako deretxorik. Entzuten diazen gauzak sinestezinak diaz. Errua juezek daukate ez dabelako bihar dan moduan zigortzen.

Maria Urizar

ileapaindegia eta solariuma

Ondo pasa jaiak

Errosario 9-1ezk. ☎ 943 74 44 89

MEKANOSA

Errosario 30
tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAXA *Ondo pasa jaiak!*

GAZTEENTZAKO MODA

Errosario, 25 - ☎ 943 74 23 02

TINDATEGIA

Ondo pasa Errosario kaleko jaietan

Foruen Enparantza 4
Tel. 943 74 00 91

Tratu txarrak Zer egin eta nora jo

Tratu txartzat, etxean gertatzen diren eraso fisikoak, psikikoak, sexualak edo beste edozein motakoak jotzen dira. Kolpeak, ubeldurak, irainak, mehatxuak eta beste era askotakoak izan daitezke.

Etxeko tratu txar gehienak ez dira salatzen eta isilpean gordetzen dira, eraso jaso duen emakumeak beldur handia izaten baitute: mendekuari beldurra, esango ote dutenaren aurrean lotsa, pertsonaren eskubideak zein diren ez jakitea, seme-alaben etorkizuna, erasotzailearenganako menpekotasun ekonomikoa eta afektiboa,...

Erasoak isilpean gordetzeak kaltea baino ez du ekartzen: etxeko bortizkeria-egoera luzatzen da eta etxeko txiek ere tratu txarrak jasan ditzakete.

ERASO SEXUALAK

Legez, beste pertsona baten askatasun sexualaren aurka indarkeriaz edo mehatxupean egindako edozein ekintza jotzen da eraso sexualtzat. Bortizkeriaz jokatzeko ez bada edo beldurra eraginda ez bada, jokaera horiek sexu-abusutzat hartzen dira. eraso eta abusu sexualak emakumeen aurka egiten diren delituen erdia dira eta gehienak ez dira salatzen. Ez salatzearen arrazoiatariko bat, jasandako erasoaren errua emakumeak berak izatearen uste okerra da.

- Eraso sexualik jasanez gero, ez ezazu zure burua garbitu eta ez aldatu erropa.

- Jo ezazu hurbilen duzun ospitalera.

- Edozein arrazoiengatik lehendabizi Udaltzaingora edo Ertzantzara jotzea erabakiz gero, eurek eramango zaituzte eritexera eta epaitegiari abisua emateaz ere arduraturiko dira.

ETXEKO TRATU TXARRAK

- Lesio fisikoak badituzu edo, ikusi ez arren, badituzula uste baduzu, anbulategira joan. Eska ezazu egindako azterketaren ziurtagiria, aurrerago epaiketarik balego, garrantzitsua izan daiteke eta.

- Lesio fisikorik ez baduzu edo desagertu badira, joan zaitez Emakumearen Udal Zerbitzura edo Udaleko Gizarte Ongizate Sailera. Han esango dizute zela jokatu eta zein eskubide dituzun.

- Gertatu zaizun guztia inguruko norbaiti kontatu. Bere testigantza oso garrantzitsua izan daiteke epaiketa egongo balitz, froga moduan erabili ahal izango baita.

- Edozein kasutan, une oro jo dezakezu Ertzantzara, Udaltzaingora edo Goardiako Epaitegira, jasandako tratu txarrak salatzerako.

- Tratu txarrak eragiten dituzten pertsonentzat ere tratamendu psikologikoa ematen duten programak daude, errehabilitatzeko eta etorkizunean horrelako ekintzarik berriro egin ez dezaten.

Kontuan izan beharreko telefonoak:

Gipuzkoa: **900 43 43 43 / 112 SOS Deiak / Emakunde: 945 13 26 13**

Iturria: Emakunde

ISPILUARI BEGIRA



MAITE

ARRIZABALGO

Ziar da harategikoa

- **Zeren aurrean jartzen dituzu muturrak?**

- Pertsona batek beste bati kalte egiten dionean.

- **Mingailuzea al zara?**

- Ez dut uste.

- **Belarjaleek ez dakite zer galtzen duten?**

- Ez, ez dakite zer galtzen duten!

- **“Dolly” izozkailuan edukiz gero salduko al zenuke?**

- Ez.

- **Sekula irabazi al duzu “tajada” on bat jokoan?**

- Ez, ez zaizkit gustatzen jokoak.

- **Umetan zer izan nahi zenuen?**

- Umetan gauza asko nahi izaten da.

- **Haragia ondo ala gutxi eginda?**

- Gutxi eginda.

- **Zein politikori ez zenioke oparituko urdaiazpiko bat?** - Aznar-i.

- **Zein gaitasun eskatzen diozu pertsona bati kalitatezko labela merezi izateko?**

- Zintzotasuna.

- **Zein ondasun izan nahi zenuke?**

- Bizi naizen bitartean, osasuna.

- **Abeslari bat?**

- Txomin Artola.

- **Zure ametsetako bidaia?**

- Suizara bidaia luze bat.

- **Zein izar ikustera joango zinateke Donostiako Zinemaldira?**

- Anthony Hopkins.

- **Urdaiazpiko mota bat?**

- Jabugoa edo Guijuelokoa.

- **Maniarik ba al duzu?**

- Bai, baina ez dizkizut esango.

- **Zezenketen aldekoa al zara?**

- Bai. Ponce asko gustatzen zait.

- **Urtaro bat?**

- Udazkena.

- **Euskaldunok haragi gehiegi jaten al dugu?**

- Ez, nik uste dut normla jaten dugula.

Asier Orbea

● Luis Mazzantini toreatzailearen omenezko 'Txoko Taurinoa' sortu da

Datorren zapatuan, hilak 10, Elgoibarko hainbat zaletuk bultzatuta, Luis Mazzantini Egia toreatzaile elgoibartarraren omenezko 'Txoko Taurinoa' inauguratuko da. Mazzantini Errosario kalean jaio zen eta ospe handiko toreatzailea izan zen. Zerbait elgoibartarrek gizon honen irudia berreskuratu nahi izan dute, eta bere omenezko 'Txoko Taurinoa' sortu dute. Inaugurazio ekitaldia toreatzailea jaio zen egun berean egingo da, urriak 10 hain zuzen. Ekitaldiak goizeko 11:00etan hasiko dira Santa Klaran izango den mezarekin. Ondoren Haritz Dantzari Taldekoek aurrekua dantzatuko dute Mazzantini jaio zen Errosario kaleko etxearen oinetan. Segidan, Estazio tabernara abiatu eta luntxa eskainiko dute, eta amaitzeko, agintari eta gonbidatuentzako bazkaria izango da. 'Txoko Taurino'ak Estazio tabernan izango du egoitza eta Jose Luis Arana da presidentea.

● Ur, zabor eta estolderia zerga

Urteko hirugarren hiruhilabeteari dagozkion ur, zabor eta estolderia (alkantarila) zergak urriaren 31ra arte ordain daitezke helbideratu gabekoen kasuan. Ordainketa egiteko Udal Bulegoetatik pasatu goizeko 11:00etatik 13:00era bitartean edo edozein banketxetan, ordainagiriak etxetara bidali baitira. Aipaturiko epea pasatu ondoren %20 gehiago kobratuko zaie ordaindu ez dutenei. Ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen da.

Artzai-txakurren lehiaketa izango da urriaren 4an San Lorentzoz

Espainia, Euskadi eta Gipuzkoako txapeldunek hartuko dute parte

Udalak, Sallobente Elkartek eta DEBEMEN Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkartek Artzai-txakurren Lehiaketa antolatu dute domekarako, hilak 4, ekainaren 20an erre zen Artazo baserriaren alde. Arratsaldeko 16:30ean hasita, Euskal Herriko artzai onenak, bakoitza bere txakurraz lagunduta, lanean ikusteko aukera izango da Sallobente auzoan.

1997an Espainiako txapelduna izan zen Fermin Ainzua nafarra *Txiko* txakurrarekin, urte berean Gipuzkoako eta Oñatiko txapelduna izan zen Jose Antonio Arrillaga elgoibartarra *Txikirekin*, duela bi urteko Euskadiko txapelduna eta beste 8 artzai arituko dira lehian. Ekitaldi honek batutako dirua Artazo baserria berrekitzeko izango da. Besterik ere antolatu dute diru bilketan laguntzeko. Izan ere, urriaren 18rako, arratsaldeko 16:30ean idi-demak antolatu dira San



Migel auzoan Soarte, Madarixako Ezkerre, Artadialde eta Ariantzaren partehartzearekin.

Bestalde, San Migeleko jaietan izan zen artzai-txakurren erakusketa eta lehiaketa, (argazkian) Joe Antonio Arrillaga auzotarrak irabazi zuen *Txiki* txakurrarekin. Bigarren Jon Osoro elgoibartarra eta *Pintxo* txakurra geratu ziren, eta hirugarren lekuan, berriz, Pello Segurola Matxinbentakoa, *Lagunekin*.

Perretxiko asko eta ezberdinak ikusi ziren Deba Beheko Haurren Perretxiko Lehiaketan

Egoitz Rodriguez, Erik Vigarra eta Brixo Conde izan ziren irabazleak

Karakate Mikologia Elkartek antolatu-tako Deba Beheko Haurren XXIV. Perretxiko Lehiaketa izan zen aurreko domeka goizean. Parte hartu zuten 22 talderen artean, Egoitz Rodriguez, Erik Vigarra eta Brixo Condek aurkeztutako perretxiko sorta izan zen irabazlea. Aranzadiko adituen esanetan,

“azken egunotan horren eguraldi txarra egin duela ikusita, kantitate eta barietate ugari egon da. Perretxiko bitxiak ikusi dira: iaz Iberiar penintsulan estreinakoz identifikatu zen *aparricus maleolens* motako ale bat, etab. Sariak ondoren zehazten den moduan banatu ziren:

1- Egoitz Rodriguez, Erik Vigarra eta Brixo Conde (727 puntu).

2- Ainhoa Urretabizkaia (700 puntu).

3- Josu Aizpuru (589 puntu).

- *Amanita Phalloides* sortarik onenena: **Ainhoa Urretabizkaia.**

- *Amanita Virosa* sortarik onenena: **Josu Aizpuru.**

- *Entoloma Sinuatum* sortarik onenena: **Iker Astigarraga, Carlos Feijoo eta Jorge Dieguez.**

- *Boletus Edulis* sortarik onenena: **Aian Alvarez.**



Gurasoentzako euskara klaseak

Udalaren Euskara Zerbitzuak, Udal Euskaltegiak eta AEK-k, herriko Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeen laguntzaz, 98/99ko euskararen transmisio kanpaina aurkeztu zuten astearte iluntzean. Kanpainaren helburua belaunaldiz belaunaldiko euskararen transmisioan oraindik ere gertatzen diren galerak geldiaraztea da. Horregatik, belaunaldien artean euskararen erabilera bultzatzeko, gurasoei zuzenduriko hainbat ikastaro antolatu dituzte. Hiru maila daude: sakontzen, ahozko harremanak euskaraz izateko gai direnentzat; lantzen, eguneroko bizitzan euskaraz jarduteko zailtasunak dituztenentzat, eta, euskalduntzen, euskara ez dakitenentzat. Honez gain, bi modulo edo ikastaro berezi prestatu dituzte. Abenduan haurrentzako ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa, eta otsailean, haur jolasak eta kantuek ikasteko. Ikastaro bakoitzeko prezioa eta ordutegiari buruzko informazioa 934 74 43 66an jaso daiteke edo ikastetxeetan.



Azkue

Akabo San Migeleko jaiak

Aurreko asteburuan hasi eta asteartean, irailak 29, *Maixa eta Itziar* trikitilarien emanaldiarekin amaitu ziren San Migeleko jaiak. Ostiralean, irailak 25, Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta, auzotarrek oparia eskaini zieten Taldeko kideei eta Ziardak bertsoa kantatu zien. Domeka arratsaldean, irailak 27, idi-demak jokatu ziren, Madarixako Ezkerra 55 plazarekin nagusitu zelarik. Bolo txapelketan Javier Osorok irabazi zuen. Bigarrena Haritz Uribesalgo izan zen eta hirugarrena Aitor Ubero. Azkenik, txekorraren zozketan 14.016 zenbakia suertatu zen irabazlea. Ordezkoa 6.705 da. Zenbaki saritua domekan saldu zen eta 15 eguneko epea dago saria jasotzeko.

● Erreminta Makina Institutuak ISO 9001 kalitate agiria lortu du

Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak, IMHk, AENOR erakundeak ematen duen ISO 9001 kalitate agiria eskuratu du. Arlo honetan IMH da agiri hau jaso duen lehenengo lanbide heziketa ikastetxea. Jose Rejo, IMHko zuzendariaren esanetan, "gure ikastetxeak egin duen guztiarengatik jaso dugu errekonozimendu hau". ISO 9001 agiriaren eskakizunak betetzeko, ikastetxearentzat oinarrikoak diren prozesuak hobetu behar izan dira: hasierako lanbide heziketa, lanean daudenen etengabeko formazio profesionala, txandakako injinerutza programa eta enpresei eskainitako zerbitzuak. 1995ean kalitate agiri hau eskuratzeko lanean hasi ziren IMHn. Kalitatezko hezkuntzari eta ikastetxearen zuzendaritzari berebiziko garrantzia eman zitzaion. 1996an, Kalitate Batzordea eratu eta lana errazteko lantaldea jarri zen martxan. Berehala estreinako lantalde pilotoa lanean hasi zen. 1996 eta 1997 urteetan lortutako fruituak IMH osora zabaldu ziren eta kalitaterako arduradun bat izendatu zen. 1998ko lehen sei hilabetekoan prozesuaren azken pausoak eman ziren, uztailearen 23an prozesu osoa amaitu zelarik.

● Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak Eibarren

Irailaren 30an Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak egoitza ireki zuen Eibarren. Orain arte, Elgoibarko eta inguruetako merkataria Donostiara joaten ziren Merkatarien Elkartearen zerbitzuak behar izanez gero, baina aurrerantzean Eibarrera hurreratzearekin nahikoa izango da. Egoitza berriaren helbidea: Untzagako torrea 5, 1. ezkerrean. Eibar. Telefono zenbakia 943 20 66 69 da.



GARE irratizaletuen urteroko irteera

GARE Irratizaletuen Elkarte bost bat lagun Aralarren (Nafarroa) izan ziren irailaren 12 eta 13an, urtero irteera bat egiteko duten ohiturari jarraki. Estatuko eta nazioarteko zaletuekin irratiz aritu ziren bi egunetan, nahiz eta eguraldi txarrak ez zuen gehiegi lagundu. Esan digutenez, karabana batean joan ziren eta Altxueta izeneko mendi tontorrean jarri zuten kanpamentua, 1.300 metroko altueran. Guztira 118 kontaktu egin zituzten, 14 kontaktu Estatuko hainbat probintziatiko pertsonekin, eta beste 10 atzerriko herrialdeko zaletuekin, tartean Alemania, Argentina, Brasil, Txile, Polonia, Paraguay, etab.

Urruzunoko lursailaren urbanizazioa onartu zen plenoan

HBk aurkeztutako Egin-en itxieraren aurkako mozioa ez zen onartu

Joan den ostiralean izan zen denboraldi berriko lehen plenoa. Bertan izan zen Guillermo Garate alkatea ere, bi hilabetez bajaran egon eta gero berriz ere lanean hasi dena. Hiru gai nagusi eztabaidatu ziren: Urruzunoko lursailaren urbanizazio proiektua, Maala eta Maala 1 sektoreen onarpena eta HBk aurkeztutako mozioa Egin-en itxierari buruz.

Lehenengo puntua Urruzunoko lursailaren urbanizazio proiektuaren onarpenari buruzkoa izan zen. Gogoan izan hemen eraikiko direla babes ofizialeko etxebizitzak. HBk esan zuenez, “Elgoibarren eraikiko diren babes ofizialekoak terreno txarrean, trenbidea eta autopistaren artean joango dira. Gainera, Muguruza eta Iñiguez De Karkizano kaleetan bizi diren auzokideei duten berdegune apurra kenduko zaie. Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen alde gaude, baina leku eta terreno onean”.

EB-IUko Juan Ignacio Ausinek esan zuenez, “ona da babes ofizialeko etxeak egitea baina, kokagunea ez da egokia, auzokideei berdegunea kenduko baitzaie”. PPko zinegotziak arrazoi bera eman zuen bere abstentzioa azaltzeko. Bozketan baietzkoek izabazi zuten 11 boturekin (EAJ, EA eta PSE), 3 ezezko egon ziren (HB) eta bi abstentzio (EB-IU eta PP).

Madalan ere etxeak eraikitzeko asmoa dago. Plenoan, *Maala* sektorearen

delimitazioa eta *Maala 1* zonaren azterketaren onarpenari buruz aritu ziren. HBk kontra bozkatu zuen, EB-IU abstentitu eta gainontzekok alde botatu zuten, puntua onartuz.

Egin-en itxiera

HBk Egin egunkariaren eta irratia-
ren itxieraren kontra mozioa aurkeztu zuen. Esan zuten, “argi ikusten da epaileak Gobernuaren menpe daudela eta ez dagoela justiziarik”. EB-IUk esan zuenez, “itxieraren kontra eta mozioarekin bat egingo dugu bi puntutan izan ezik”. PPko zinegotzia den Juan Carlos Abianen hitzetan, “Garzon epaileak terrorismoaren apologia egiten zuelako itxi zuen komunikabidea. Botere legislatiboa, exekutiboa eta judiziala banatuta daude”. Isaak Loiolak, EAJren izenean esan zuenez, “persona batzuk zer bait egin izana ez da arrazoi nahikoa egunkari bat itxeko. Horrek ez du ekarriko bakea. Halere, mozioari ezezkoa emango diogu ez gatzelako bat HBk gauzak esateko erabiltzen duen formarekin”. Mozioa puntuz puntu bozkatu zen. Lehen puntuan, “Egin-en itxiera



Karkizanoko biztanleak gune berderik gabe geratuko dira Babes Ofizialeko etxeak eraikitzean.

gaitzetsi eta irekitzeko exigitzen da”. HB, EA eta EB-IUk alde botatu zuten (6 botu) eta EAJ, PSE eta PPk kontra (9). Bigarren puntuan, “itxieraren kontrako ekintzetan parte hartzea”, HBk alde botatu zuen, EA eta EB-IU abstentitu egin ziren eta EAJ, PSE eta PPk kontra botatu zuten. Hirugarrenik, “Gobernu espainiarri errepresioa lagatzeko eskatzen” zioten. Puntu honetan ere HB, EA eta EB-IUk alde bozkatu zuten eta gainontzekoek kontra. Azken puntua mozioaren erabakiaren berri Garzon epaileari, Mayor Orejari eta Aznarri, besteak beste, ematea zen eta honako hau ere atzera bota zen EAJ, PSE eta PPren botuekin. HB eta EB-IUk alde botatu zuten eta EA abstentitu egin zen.

Gillermo Garate alkatea berriz ere lanean

Ia bi hilabete bajaran egon eta gero joan den astean hasi zen lanean Guillermo Garate alkatea. Gogoan izango duzuen bezala Garatek pelbisa apurtu zuen bizikleta istripu baten ondorioz. Plenoa eta gero izan ginen Gillermorekin eta esan zigunez, “guztiz ez deskonektatu arren, bueltatzean gauza batzuk geratuta egon direla konturatu naiz eta uztailean hasitako proiektuak martxan jarri behar dira berriz”. Lehentasunen artean, aipatu zuenez, “Udaletxeak dauzkan zorrak bajatzen saiatu gera eta uste dut dexente ondo ibili gerala, nahiz eta inbertsioak ez izan nahi bestekoak”. Legealdia amaitu bitartean, “nere erronka pertsonala Elgoibar berpizta da, hori bilatu dut hasieratik.



Jaiotzak ez daude nere esku baina etxebizitzak egiten ari dira, babes ofizialekoak laster hasiko dira. Industrialdeei dagokienean, ondo gaude eta berriak aurikusten dira, besteak beste, Albitxurikoa, hor dago baita ere Lerun-Morterika... Sigmarekin ere bueltaka gabiltza eta neregatik lehenbailehen beteko litzake enpresaz. Horrez gain, zerbitzu berriak bultzatu behar dira: tanatorioa, errausketa-labea, kamioiak gordetzeko parkea eskualderako... Nire nahia Elgoibar eskualdeko zentro bihurtzea da, bizitza eman eta bertokoak geratzeaz gain, kanpotik ere jendea erakartzea. Hau guztia lortzeko ona litzateke alderdi guztiak elkarlanean aritzea”.

ION OSORO:

“Artzai txakur ingelesak hobiak dia euskaldunak baino”

San Lorentzo bailarako Arostegi baserrikoa da Ion Osoro. 30 urteko gazte honek duela bost urte Jose Antonio Arrillaga eta “Txiki” txakurra ikusi zituen Oñatiko Artzai txakurren lehiaketan parte hartzen. Harrituta geratu zen eta berak ere hortan hasi nahi zuela erabaki zuen. Horrela bada, hasieran euskal artzai txakurrekin hasi zen, bere kontura. Igande honetan, Artazo baserriaren omenez ospatuko den Artzai Txakurren lehiaketan parte hartuko du.



- Zein berezitasun zuen “Txiki”k?

- Ordura arte euskal artzai txakurrak ikusi izan nitxun, baina “Txiki” arraza ingelesekua da eta berezixak dia. Euskal arrazakuak ardixekin gertuan ibiltzeko ondo daude baina urrutira ihes itxen dabe, ez dizue kasorik itxen eta askoz zailauak dia dominatzen.

- Polemikaren bat sortu da, ez?

- Bai, oin esan dabe lehiaketetan euskal artzai

txakurrek bakarrik parte hartu ahal izango dabela. Berba ein dou danek eukitzeko aukeria eta sari bereziren bat emateko euskal txakurrei baina ez gera ados jarri. Seguruena lehiaketa paraleluak antolatuko ditxugula arraza guztietako txakurrentzat. Eta hori ez da ona izango.

- Asko entrenatu behar al da?

- Astian pare bat egunian komeni da, ze bestela txakurrei ahaztu itxen jakue ikasitxakua. Hori bai, lehiaketaren bat tokatzen bada entrenamenduak gogorrauk izan bihar dia.

- Igandean San Migelen bigarren izan zinen.

- Bai, aurten lehiaketa mordo baten parte hartu dot eta gehixenetan erditxik gorako postuetan geratu izan naiz. Ez dao gaizki kontuan izanda hasi berrixa naizela. Domekan San Lorentzon dao erakusketia eta han ere izango naiz baina oso maila oneko jendia dator. Egixa esan, kompetentzia haundixa dao. Katalanak, esate baterako, oso onak dia.

- Jose Antonio duzu irakasle.

- Bai, txakurra erosi nionetik oso lagun onak gera eta berak zuzentzen ditxu nere erru guztiak. Berak esaten dia nundik nora jun bihar doten.

- Zaila al da txakurrarierakustea?

- Arraza ingelesekuekin errezaua da. Egixa esan, ahotsa izorrrauta amaitzen dozu askotan, ze diar asko ein bihar dozu, baina azken batian ardixek txakurrari euki bihar diue errespetua eta txakurrak zuri. Hori lortzia inportantia da.

- Lehiaketetan zer baloratzten da?

- Gauza asko. Prueba desberdinak daude. Batian, txakurra bandera artian ibili bihar da artaldera jun arte eta ez da erreza hori lortzia, ze normalian txakurra zuzenian juten da ardixena. Beste prueba batian txakurra ibilbide batetik jun bihar da ardixena eta gero toki batera eruan bihar ditxu, hesi batera. Azkenian, artaldia txabola moduko batian sartzia lortu bihar dau txakurrak. Hau da zailena, ze ardixek itxitxako lekuetan ez dabe sartzerik nahi izaten. Gainera, txakurra poliki ibili bihar da eta ezin die ardixeri hiru bider baino gehixotan hainka in.

- Laster zaitugu txapel-dun, Ion.

- Ez da erreza izango. Hala ere, neretzat afiziua da. Nik ofizinan itxen dot lan eta hango tentsiua kentzeko onena, baserrira ailegau eta txakurrakin ibiltzia da.

Etxea mendien eraikitzeko baldintzak

Nork ez du amestu mendian, zelai berde eta txori artean, etxetxo bat eraikitzearekin? Badi-rudi askok nahiago dutela herriko zarata eta jende artetik ihesi, leku lasaiagoetara alde egitea. Izan ere, azken urteotan, Elgoibarren bertan dextente ugaritu dira mendian eraikitako etxebizitzak. Baina, dirudienez, gauzak aldatzen ari dira eta legedia berriaren arabera, gero eta oztopo gehiago dago mendi saila erosi eta txaleta eraikitzeke.



Orain arte, mendian lur saila erosi eta etxea eraiki nahi zuenak udal-letxean baimena eskatzen zuten. Udaletxetik Diputaziora bidali behar zen eskaeraren txostena, hauek baitute azken hitza. Baina askotan zuzenean udalak luzatzen zuten lizentzia, besterik gabe.

Zer gertatu da? Azken urteetan, han eta hemen, etxeak altxatu dituzte eta hori, besteak beste, kaltegarria da baserritarrentzat. Izan ere, mendian terrena dutenei errentagarriagoa ateratzen zaie lurra saltzea baserritarrei alokatzea baino, eta baserritarrak konpetitu ezinik gertatzen dira.

Gaur egun gauzak desberdinak dira. Mendian etxea eraikitzekeo ilusioa edo kapritxoa duenak hainbat baldintza bete behar ditu, esate baterako, aurretik ne-

kazal produkzio edo esplotazioa duela frogatu behar du eskaera egiten duenak. Era berean, esplotazio honek urtean hainbesteko etekina ateratzen duela azaldu behar du.

Zeri deitzen zaio nekazal esplotazioa?

1993ko martxoan Eusko Jaurlaritzak kaleratu zuen dekretuak dioenez, ondokoak kontsidera daitezke nekazal esplotazio bezala:

- 1- Nekazaritza: lorak, biberoak, perretxikoak...
- 2- Basozantza: egurra, basorako haziak dituzten landare eta loreak produzitu edo batzea...
- 3- Abeltzantza: hegaztiak, erlezantza, peleteriarako animaliak...

Halere, aurretik esan dugun bezala, askok etxea eraikitzekeo helburuarekin, esplotaziorako zela esaten zuten baimena eskatzeko txostenean baina gero, etxea eraikitakoan, esplotazioa kentzen zu-

ten. Horregatik, legeak ondoko zehazten du:

- Esplotazioa Gipuzkoako Nekazal Esplotazioen Erroldan izena emanda egon behar da.

- Eusko Jaurlaritzaren 1993/84 Dekretuak zehazten dituen nekazal esplotazioa izan behar du.

- Esplotazioaren gutxieneko hedadura Laborantzarako Unitate Minimoak markatzen duena izan behar da.

- Ganadua elikatzekeo lekua izan behar du esplotazioak.

- Esplotazioaren gutxieneko azalera hektarea bat izan behar da.

- Esplotazioak, urteko, 750.000 pta.ko sarrerak eman behar ditu gutxienez.

- Eskatzailea Seguritate Sozialeko Nekazal Erregimen Berezian titularra izan behar da.

- Eskatzaileak esplotazioa jarri berri duen kasuetan errolda aitortpena (enpresariaren erregistroa) egin duela frogatzen duen zertifikatua aurkeztu behar du (Hazienda Foral ematen duena), nekazal enpresaria den heinean. Esplotazioak hainbat urte baditu, azken Errenta Aitorpeneko nekazal errendimenduak aurkeztu behar ditu.

- Eskatzaileak landu behar duen esplotazioaren gutxienez 5 urteko esperientzia duela azaldu behar du edo, bestela, nekazal arloko ikasketak.

Esandako guztiaz gain, Udalak baimena eman aurretik, txostena Diputazioan aurkeztu behar da eta honek ondo aztertu eta gero erabakiko du zein kasutan eman baime-na eta noiz ukatu.



ZABALETA baserria

Kaltik 7 km.ko distantziara dago Zabaleta baserria, San Lorentzo auzoan. Bertakoak dira Juanita eta Jose, eta biekin aritu gara berriketan euren bizimoduari buruz. Esan digutenez, tokatu zaielako daramate baserriko bizimodua eta biak kalean lan egingdakoak izanik, aukeran lantegiko ordutegia eta jorjala nahiago dutela aitortu digute.

“Baserrixan lan asko eta jornal txixkixa dakazu”, aitortu digu Juanitak. Juanita Azkue zarauztarra da. Esan digunez, “Zabaletara ezkondu nitzan. Ez dot uste holakorikan ingo zabanik senarrak! Neri oso gogorra in zatan kostia laga eta mendira etortzia. Nere baserritxik itsasua ikusten zan. Lehengo aldian ondo dao Zabaleta, baina ni etorri nitzanian oso baso itxixa zan, biderik ere ez zauan... Gogorra in zatan”. Eibarren egiten zuen lan Juanitak baina ezkondu zenean baserriko lanak egitera pasa zen.

Goizeko 5:00etan jaikita

Baserrria oso lotua dela aitortzen dute biekin. “Eguen eta zapatuetan goizeko 5:00etan jaikitzen gera. Baratzeko gauzak hartu, furgonetan sartu eta Elgoibarren eta Eibarren saltzen ditxugu. Ostantzian, goizeko 7:00ak inguruan jaikitzen gera. Ganaua errenditziak ez dau halako lanikan ematen, baina ortua zaindu in bihar da, batez ere azken egunetan bezela, hego haizia badao, txarrena hego haizia da barazkixentzat”.

Negutegiak

Zabaleta toki aldapatsuan dago eta oso zaila da negutegiak jartzea. Badituzte zenbait negutegi baina, Josek, ahal balu, gehiago jarriko lituzke. “Baina, horrek ere, lan gehixo emango



Baserriko estresa

Gabonetan edo, astebetetxo bat libratzeko itxaropenean daude, “baserritxarrak trankil eta estresik gabe bizi gerala pentsatzen dabe batzuk. Bai zera! Ofizinan lan itxen dabanak badaki hil bukaeran zenbateko jorjala eukiko daban. Baserrixan sekula ez dakizu hori eta lana beti dao. Horrek bai sortzen ditxula tentsiua eta estresak!”.

liguke. Azkenian, baserrixan edozer etaratzeko lan asko in bihar da”. Hori bai, igande arratsaldea libre hartzen ahalegintzen dira. “Hori sagraua da! Normalian kostara itxen dou bueltatxo bat. Nik derrigorra dakat itsasua ikustia eta Josek, Zestuatik juteko esaten dian arren batzuetan, nik beti esateiot ezetz, kostatik juteko, autopistatik ere ez, itsaso bazterretik gustatzen jata. Debara ailegau orduko igartzen dot kostiak dakan argitxasuna eta zabalasuna. Barrualdia oso itxixa da neretzat”. Juanitak, beraz, igandetan itsasoa ikustea du tentsioak askatzeko modua. Joseren kasuan, berriz, “eguen eta zapatu eguerdixan lagunekin txikiteuan ibiltzia”.

ZABALETA

- **Auzoa:** San Lorentzo.
- **Bizilagunak:** Tomasa Muguruza, 88 urte; Jose Mendikute, 55 urte; Juanita Azkue; 50 urte eta Josu Mendikute, 20 urte.
- **Lur hedadura:** 24 hektarea
- **Esplotazioa:** okelatarako behiak eta txahalak, pinadiak eta ortua. Ortutik ateratako produktua saldu egiten dute.

 **DEBA GARAIA** *Zorionak eta ondo pasa jaiak*
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Errosario, 34-1 ez. Elgoibar Tel: 943 74 42 83 Faxa: 943 74 42

GOROSTIZA
• *Jostailuak*
• *Eskolako materiala*
• *Opariak*
• *Fotokopial*
LIBURUDENDA
Ondo pasa jaiak!
Errosario, 16 Tel: 943 74 03 88



1999ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiekin. 1998ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker

izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen.

943 74 37 04

● ● ● JAIOTAKOAK ● ● ●

- Koro Sabando Loiola (Irailak 7)
- Kattalin Andrade Urain (Irailak 23)

● ● ● EZKONDUTAKOAK ● ● ●

- Jesus Mari Iriondo Garate eta Agurtzane Unamunzaga Zorrozueta (Irailak 4)
- Imanol Cerdeira Lasheras eta M. Jesus Iranzo Tornos (Irailak 5)
- Julian Beraza Felones eta Yolanda Zengotita Blanco (Irailak 19)
- Andoni Etxeberria eta Ismene Fulgencio (Irailak 19)
- Jesus Mari Aizpurua Zabala eta Ane Armendia Larrañaga (Irailak 26)

● ● ● HILDAKOAK ● ● ●

- Juan Antonio Vizoso Blanco, 98 urte (Irailak 8)
- Lucio Agirregomezkorta Amuategi, 73 urte (Irailak 12)
- Inazio Bereziartua Aranburu, 82 urte (Irailak 15)
- Jose Domingo Bilbatua Arostegi, 68 urte (Irailak 16)
- Jesus Garitagoitia Loiola, 48 urte (Irailak 16)
- Rafael Pérez Hermecheo, 70 urte (Irailak 23)
- Blasa Zubiaurre San Martin, 84 urte (Irailak 27)

Concepción Uribetxeberria Arriaga

(1900-1974)



- 1900 urteko abenduaren 8an jaio zen Errosario kalean. Egun honetan jaio zelako ipini zituen izen hau.
- 10 anai-arreba ziren, gazteena bera.
- Eskola publikoetan ibili zen. Neskaitila zela amari laguntzen zion arropak garbitzera eramanez. Umeak zaintzen ere aritu zen.
- Bere kuadrilarekin sarritan joaten zen mendira, oso zaletua baitzen. Askotan joaten ziren Azkubeko baserri ondoan zegoen futbol zelaira, orduko Elgoibar F. B. C. izena zuen herriko taldea animatzera.
- Gogokoa zuen Kontzezioko Amabirjinaren bederatzaurrena egitea.
- Arrieta abarketa lantegian lan egin zuen denboraldi luzean.
- 1929an ezkondu zen Zakarias Azpiazurekin eta 2 mutil izan zituzten. Zoritxarrez 36 urterekin geratu zen alargun.
- Peñalbatarren fundizioan egin zuen lan. Geroago Sigmara joan zen eta jubilatuta arte bertan egin zuen lan.
- Emakume sufritu eta leial honek pazientzia eta zailtasun handiz aurrera atera zuen familia.
- Bazuen Concepción-ek anekdota bat: 68 urterekin medikuarengana joan zen ez zuela ondo entzuten eta. Medikuek urteen kontua zela esan zion baina berak erantzun: "adin bereko lagun bat daukat eta harek ederki entzuten du".
- Errosario kalean bizi izan zen beti. Sinesmen handikoa, hizlaria eta familia girokoa. Gogokoak zituen paseatzea, musika entzun eta kantatzea.
- 1974ko otsailaren 3an hil zen 74 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



Eibarko erata eta ekarria iruditu azkikoak Eibar taldea, zuzenduz eta zautu. Hauen de; hauetatzen ari da.

Egun honetan Errege Koparen kanporaketa jokatu zuen Eibarrek Sevillaren kontra eta 1 eta 0 irabazi zuten, Sevillakoak kanporatzea lortu zutelarik.

Ikus dezagun zein diren:

Atzean, ezkerretik eskumara: **Gómez de Segura, Garmendia, Berasoain** entrenatzailea, **Fuentes, Ribera, Campos, Roberto** eta **Zapico**.

Makurtuta: **Nestares, Hidalgo, Luluaga, Altuna, Arrue** eta **Carrillo**.

Umeak: **ezezaguna, Gorka Merino, Joseba Etxeberria** Athletic-eko jokalaria eta **ezezaguna**.

ko bat gaur egun 1. mailako futbola...

HARATEGIA - URDAITEGIA



ZIARDA

Errosario kalea, 10 Tel: 943 74 05 54

GABILONDO

TABAKO DENDA

Errosario jai zoriontsuak igaro!

Errosario, 2 Tel: 943 74 16 38

*Apir-oberazten udaldira girta
baitzena aberatzen*



Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

*bona ematariketan %10eko
beherapena gaste
txartelarekin*

David Conde tarra ita Ehiza Xeheko Txape

Haize zakarraren eraginez nahi baino txori gutxiago ehizatu ziren

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta, joan den zapatu goizean txakurrak lagundutako Ehiza Xeheko Txapelketa jokatu zen Urnobotzan herritar eta bazkideentzat. Antolatzaileen esanetan, “eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu”. Haize izugarria egin zuen eta askatu ziren 60 faisaietatik 41 baino ez zituzten harra-

patzea lortu. 21 ehiztarik hartu zuten parte, irabazlea David Conde, 24 urteko elgoibartarra izan zelarik. ‘Nela’ izeneko 4 urteko txakurrarekin lehiatu zen, setter ingeles arrazako txakur emea. David Condek 5 faisai bota zituen, bigarrenak baino bat gehiago. Bigarrena Itziarko Imanol Urbietan izan zen, 4 faisairekin, eta hirugarrena, Imanol Garai-

zabal 19 urteko elgoibartarra, 4 faisairekin hau ere. Bigarren eta hirugarren sailkatuek faisai kopuru bera harrapatu zituzten baina Itziarkoa lehenago iritsi zenez kontroleko postura, bigarren postua eskuratu zuen.



Argazki handian partehartzaile guztiak eta bestean David Conde eta Nela. Herriko txapelketan lehen hiru postuetan geratu diren ehiztariak zonaldeko txapelketan hartuko dute parte. Ziurrenik asteburuan jokatuko da Elgetan.

Mendi ir Pilarr


Morkaiko Mendizale Elkartek urriaren 10, 11 eta 12an, Pilarreko jai-zubian, mendi irteera egingo dute Respomuso-ko (Huesca) aterpetxera. Bertan hartuko dute ostatu, eta nahi duenak hainbat mendira igotzeko aukera izango du. Bi aukera izango dira: alde batetik lo egitea, eta, bestaldek, pentsio erdia. Prezioak edo bestelako xehetasunak jakin nahi dituenak bulego orduetan pasa datieke elkartetik edo 943 74 02 97 zenbakira dei dezake.

Eskuz Binakako Pilota Txapelketa

Urtero bezala, San Migeleko jaietan auzoko bikoteen eskuzko pilota txapelketaren finala jokatu ohi da. Argazkian irailaren 29an, asteartea, jokaturako finalaren ostean egindako sari banaketa ikus dezakegu. Partidua oso berdindua izan zen eta nahiko luzea gainera. Ordubeteko lehia gogorrean aritu ostean, kostata baina, azkenean, urdinak nagusitu ziren. Emaizta beraz, Loiola eta Agirrebeña 22, Karral eta Ubera 19.



“Tenisian serixo ibiltzeko kanpora jun bihar da”



Ander Oñederra

- **Adina:** 17 urte.
- **Gogokoen duzun tenista?** Berasategi, euskalduna dalako eta ondo jokatzen dabalako.
- **Zenbat raketa dituzu?** Teniseko hiru. Fronteniserako ere badakat raketia.
- **Noren aurka jokatuko zenuke partidu bat gustura?** Berasategiren aurka, noski!

- **Tenisaren munduan nahiko sartuta zaude. Zenbat urte daramatzazu?** - Urtebete darmat jokatzen eta Donostiako klub batean nago, Hondarretan.

- **Federatuta zaude eta konpetizioan ere bazabiltza.** - Klubian sartu nitzanian federatu eta konpetizuan sartu nitzan. Lelengo torneuan nahiko ondo ikusi naban nere burua, semifinaletara heldu nitzan eta jokatzen jarraitu dot.

- **Zein mailatan jokatzen duzu?** - Juniorretan nao, lelengo urtian. 18-19 urtera artekuak jokatzen dogu. Maila handiko kategoria da, Katalanak batez ere. Izugarritzko egurra ematen digute katalanek. Azken torneuan, Donostiako Torneo Internazionalian, katalanak, frantsesak,... danetik etorri zian eta sekulako maila zauan. Bigarren errondan katalan bat tokau jatan eta kanpuan geratu nitzan. Hala ere, nahiko ondo moldatu naiz lelengo urtia izateko.

- **Zure kabuz ikasi duzu jokatzen ala norbaitek entrenatzen zaitu?** - Txikitatik gustau izan jata tenisa. Oin dala urtebete arte ez naukan jokatzeo aukera handirik, baina iaz Ondarruko pertsona bat ezagutu naban eta esan zian ia nahi naban berakin entrenau. Bere semia entrenatzen dau eta oin ni ere bai. Asteko zazpi egunetan entrenatzen dot, egunean bi ordu. Astelehenetik ostiralerara bitartean Elgoibarko IMHko pistan eta larunbat eta igandetan Donostian.

- **Zein eratako entrenamendua egiten duzu?** - Aste batian, adibidez,


boleak lantzen ditzugu. Hurrengo batian sakiak; abiadura ere lantzen dogu zelaian hobeto sentitzeko,...

- **Alderik igartzen duzu hasi zinetik?** - Bai, alde haundixa. Hobeto jokatzen dotela igarri dot, ez ditzut hainbeste akats eitxen, sakietan ere igartzen da,... Hala ere, bi ordu bakarririk entrenatzen ditzut, oso gitxi da.

- **Gutxi?** - Bai, katalanek adibidez, egunian bost-sei ordu entrenatzen dabe. Goiza tenisian jokatzen ematen dabe eta arratsaldian eskolara juten dia. Hamen ezinezkoa da holakorik planteatzia.

- **Boleak, errebesak, sakeak... jorkaldi guztiak menperatzea zaila izango da.** - Bai. Nere puntorik onena errebesa da. Zailena, nere ustez, bolea da. Tantua ein bihar izaten da eta askotan pelotia kanpora juten jatzu. Teknika haundixa bihar da, hanka bat aurreratu, bestia atzeratu, goroputza mobitxu,... ondiok asko landu bihar dot.

- **Elgoibarren federatuta dagoen bakararra izango zara.** - Bai, bakararra naiz. Ondo egongo litzake kluba sortzia Elgoibarren, pistia behintzat badao. Jendia afizioz ibiltzen da baina federatzeko asko jokatu bihar da. Euskal Herrixan oso zaila da afizionatu mailatik salto eitxia. Berasategiz aparte inork ez du lortu. Arazua da hemen ez dauala klubik, hiriburuetan pare bat klub eta kitto. Tenis zelaiak badaoz baina alkilerre ere karua da. Tenisian serixo ibiltzeko kanpora jun bihar da.



Irakaslea:
M. Karmen Elortza

GANTXILO IKASTAROA

2 maila:

12 orduko ikastaroa

- Ezer ez dakitenentzat
- Sakontze ikastaroa

Izena emateko azken eguna: **urriak 9**



Elgoibarko Izarra K. E.



Elgoibarko Udala

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia



Futbola, 98/99 denboraldia
Infantilak eta Pedrusko

Infantilak



A tzean, ezkerretik hasita: **Haritz Calvo, Mikel de Pablo, Andoni Armendia, Antxon Ezenarro, Ivan Murua, Jon Aranzamendi, Mikel Lariz, Xabi Peñaranda, Jon Irazabal eta Andres Muñoz** entrenatzailea. Makurtuta: **Egoitz Rodriguez, Unai Gasteain, Unai Mujika, Carlos Feijoo, Andoni González, David Vilarchao, Mikel Muñoz, Andoni Etxabe eta Mikel Ruiz.** Aurrean, **Aitor Mugerza eta Iñigo Irazabalbeitia.** Argazkian **Haritz Arrieta** falta da.

Infantilek partidu bakarria jokatu dute, Unión Txikiren kontra. 3 eta 1 galdu zuten, "nahiz eta ondo jokatu genuen, bigarren zatian batez ere". Andres Muñoz da entrenatzailea eta 3 urte daramatza kategoria honetako taldea entrenatzen. "Infantilen gorengo kategorian gaude, Ohorezko mailan, eta oso maila altua da. Iaz mantentzea lortu genuen baina aurten oso zaila izango da". Talde honek gorabehera handiak izaten ditu urte batetik bestera, jokalaririk asko joan eta berriak etortzen baitira.

Pedrusko



A tzean, ezkerretik hasita: **Agustin Unzueta** entrenatzailea, **Andoni Iglesias, Raul Alonso, Raul Carcedo, Iker Izagirre, Imanol Carcedo, Jose Mari Oruesagasti** presidentea, **Jose Antonio Nogales, Jon Revert, Koldo Lartain, Jon Ibañez eta Jose Ignacio Ortiz** entrenatzailea. Makurtuta: **Oscar Uria, Fernando Romero, Candi Romero, Alex Vigara, Ibon Etxaniz, Antonio Gómez, David Rojo, Juan Romero, Arkaitz Leiaristi, Javi Badillo eta Mikel Alvarez.** Falta direnak hauek dira: **David Conde, Carlos Conde, Aitor F. de Jauregi, Luis Bellota, Garikoitz Muñoz eta Angel Romero.**

Pedrusko taldea 2. erregionalean dago eta duela hiru bat urte sortu zen futboleko jokatzekeo zaletasunak bultzatuta. Aurten bi partidu jokatu dituzte. Lehenengoan 1 eta 1 berdindu zuten Antzuolan baina 3 jokalaririk elgoibartar lesionatu ziren norgehiagokan. Bigarren partidua 1 eta 3 galdu zuten Urolaren kontra. Lesioak eta bestelako konpromezuak direla-eta "ekipoa bere ahalmenen azpitik ibiltzen da", esan digu J. M. Oruesagastik. "Ilusio itzela dute eta ekipoa egon badago".

EMAITZAK

Futbola

- Elgoibar 1 - Soraluze 0 (1. erreg.)
- Pedrusko 1 - Urola 3 (2. erreg.)
- Elgoibar 0 - S. Herrera 2 (L. N. jub.)
- Elgoibar 4 - Bergara 1 (Neskak)
- Osasuna 1 - Haundi 1

Idarraga Kafeak 2. sarria

Haundiko jokalaririk erregularrena 98/99

JOKALARIA..... PUNTUAK

- 1- Beitia 13
- 2- Eneko 10
- 3- Igor 7
- 4- Txasio 7
- 5- G. Leonardo 5
- 6- Loren 5
- 7- Elkoro 4
- 8- Muguruza 3
- 9- Madina 3
- 10- Caro 3
- 11- Aitor Trebiño 3

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 3

- 10:45 Elgoibar - Aurrera (Kad.)
- 12:15 Elgoibar - Mundaiz (1. jub.)
- 17:00 Haundi - Valladolid

Igandea, 4

- 12:00 Elgoibar - S. Herrera (Inf.)

FEDERAZIO KOPA

Asteazkena, 7

- 19:30 Haundi - Aurrera Ondarroa

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 3

- 16:00 Elgoibar - Zarautz (Kad. mut.)
- 17:30 Elgoibar - Zarautz (Jub. mut.)
- 19:15 Elgoibar - Zarautz (Senior mut.)

A

indartuz doa urtez urte

1992an hasi ziren ohitura honekin eta gero eta 'popularragoa' da


Gaur, hilak 2, errosario kaleko jaiak hasi dira. Asteburu osoan zehar, hainbat ekitaldi egingo dira. Egun handia, berriz, asteazkena izango da, Errosarioko Amabirjinaren Eguna. Egun honetan 1992 urtean estreinakoz egin zen Salbea egingo da, azken urteotan jaietako ekitaldirik 'popularrrena' bihurtzen ari dena.

Maite Vallejok barru-barruan dauka errotuta fede kristautaua. "Konbentzimenduko fedea daukat nik". Fede honek bultzatuta, 1992an, Errosario kaleko jai batzordearen eskari bati erantzunez, Amabirjinaren oinetan Salbea errezatzeko ardura hartu zuen Maitek. Duela sei urte hasitako tradizioa errotzen eta indartzen joan da urteen poderioz. "Gero eta herritar gehiago elkartzten gera Errosarioko Amabirjinaren Egunean, urriaren 7an, gure Ama denari otoitz egin eta Salbea kantatzeko". Lehendabizi, arratsaldeko 19:00etan meza izaten da Parrokian. Meza oste-

an, herritar guztiak Amabirjinaren inguruan biltzen dira otoitz egiteko. Maite Vallejo izaten da otoitza zuzentzen duena. "Urte batzuetan Inazio Mugerzak lagundu izan dit zeregin honetan eta beste batzuetan Juanito Gorostizak". Hasierako urteetan Amabirjinaren irudiaren alboko etxe-ko balkoira igo eta bertatik egiten zen otoitza. "Azken urtietan, berriz, Porrune goiko balkoian jartzen gera, Amabirjina aurrez aurre eukitzeko". Lehendabizi, testu bat irakurtzen du Maitek, "nik neuk prestatutakua, euskeraz eta erderaz, ze danerako jendia eoten da eta danak hartu bihar dia kontuan". Ondoren, otoitz egiten zaio Amabirjinari. Otoitz hau ere Maitek idatzitakoa da. Segidan, erresponsoa irakurtzen da eta ekitaldiaren amaieran, herritarrek Salbea kantatzen dute. Ekitaldi honetan kaleko eta herriko hildako guztiak gogoratzen dira.

Tradizio zaharreko jaiak

Sasoi batean Errosario kalea sona eta izen handikoa zen. Bertako jaiak ere famatuak ziren. Koldo Lizarralde etnografoak bildutako datuen arabera, 1587. urtean, Fray Martin de Garibaik Errosarioko Amabirjinaren Kofradia sortu zuen. Itxura denez, kofradia honek sortu zuen urriko lehen igandean, Amabirjinaren irudia bizkarrean hartuta, kaleetan zehar prozesioa egiteko ohitura, mu-



Urriaren 7an, herritarrak Amabirjinaren aurrean elkartzten dira otoitz egin eta Salbea kantatzeko.

siko batek pifanoa eta kaja (flauta eta tanborra) jotzen zituelarik. Musiko hau 'kajero' izenez omen zen ezaguna. Mende batzuek geroago, dantzariak ere hasi ziren prozesioan parte hartzen. Mendeak eta urteak pasatu dira eta zenbait ohitura galdu egin dira, prozesioarena, adibidez. Gaur egun urriko lehenengo domekako errosarioa egiten jarraitzen da. "Domekan, arratsaldeko 18:00etan Jaun Agirixa izaten da eta elizkizun honetan errosaixua errezatzen da. Ohitura hau lehenao sarraxio eitzen zan". Hala ere, beste zenbait ohitura berri sortu dira, Salbearena, esaterako. Maitek dioen bezala, "honek ohitxurok oso ederrak diaz, eta horregatik, instituzionalizatu eta finkatu egin behar ditugu".



Errosario kaleko Amabirjina loreekin apaintzen dute.



Nerea Gorostiza

HEZKUNTZA BEREZIA

- **Magisteritza ikasketak amaitu berri dituzu Hezkuntza Berezi-ko espezialitatean.**

- Bai. Donostian ibili naiz oin arte. Lelengo promoziua izan gera. Lendik bazauan antzerako modulo



bat baina gu izan gera lelenak magisteritza ikasketetan espezialitate hori itxen.

- **Zein erako espezialitatea da?**

- Magisteritza da, baina haur mugatuekin, gutxitu fisikoeekin, autistekin eta abar itxen dozu lan.

- **Metodologia desberdina da?**

- Bai. Hasteko, haur guztiek taldeka ikasten dabe eta hauek normalian banaka lantzen dia. Gainera, neurrira egokitutako programak landu bihar dia.

- **Zein ikasgai daude?**

- Danetik: euskara, historia, si-kologia.... Lelengo urtietan nahiko ikasketa oinarritzakuk dia eta amaieran lantzen dia espezialitate-kuak.

- **Udaleku berezietan ibili izan zara begirale, ezta?**

- Bai. ASPACE-ko umiekin egon nitzan hamabost egun. Jun aurretik bildurra nakan, ze ez nakixan zelakua izango zan. Baina oso espezialitate politikoa izan da. Ume atzeratuak dia, baina asko laguntzen dizue konturatzen dianian berrixa zerala, eta beste edozeinek baino gehixo baloratzen dabe eurengatik itxen dozuna. Oso-osoa aberasgarria da alde horretatik.

- **Zure bokazioa al da?**

- Nik beti nahi izan dot gorrekin itxia lan baina ez zauan espezialitate

bat horretan oinarritzuta. Guk beste gauza batzuen artian landu dou goren kasua. Udalekueetan ikusitxakua eta gero esan leiket asko gustatzen jatala eta berriz aukeratu bihako banu zeozer, magisteritza ingo nabala Hezkuntza Berezi-ko espezialitate hartuta.

MAGISTERITZA

ARABA

- Hezkuntza Fisikoa 7,25
- Haur hezkuntza 6,06
- Lehen Maila 6,47

GIPUZKOA

- Entzumena eta mintzamena -
- Hezkuntza Berezia 7,02
- Haur Hezkuntza 5,70
- Lehen Maila 5,78
- Atzerriko hizkuntza 6,58

BIZKAIA

- Haur Hezkuntza 5,83
- Lehen Maila 5,70
- Atzerriko hizkuntza 6,85
- Musika Hezkuntza 5,84

ARRASATE-MONDRAGON UNIBERTSITATEA

- Haur Hezkuntza -
- Ingeles filologia -
- Hezkuntza Berezia -

IRTEERAK

Haur eskolako, LHko eta hezkuntza berezi-ko irakaslea eta irakaskuntzarekin loturiko ekintzak orokorrean.

BETI ARGi, S. L.

Erregalu artikulak
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.

ERROSARIO, 6 behea. Tel: 943 74 16 44



ileapaindegia
solariuma

Errosario Kaleko jai zoriontsuak igaro! Gora bihotzak!

Errosario, 23 behea
Tel: 943 74 26 92

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

2 ostirala

22:30 ANTZERKIA

Antzeztaldea:
 Tanttaka Teatroa
 Antzezlana:
 "Shakespeare osoa
 (gutxi gorabehera)"
 Herriko Antzokian

3 larunbata

11:30 URRUZUNO LITERATUR TALDEAREN BILERA
 BARRENen

17:00 KUKUBILTIXOREN TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

Plaza Handian (Eurria egiten badu Herriko Antzokian)
 Antolatzaileak: Udal Euskara Zerbitzua, Udal Euskaltegia eta AEK

19:30-22:15 ZINEA

"Expediente X"

21:30 KONTZERTUA

Potrotaino eta
 Mutuo Desprecio
 Gaztetxean

4

igandea

9:30 KILOMETROAK 98-AUTOBUSAK

Irteera Sigmako zubian
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra K. E.

16:30 ARTZAI TXAKURREN TXAPELKETA SALLOBENTEN

Antolatzaileak: Sallobente Elkarte, Udala eta DEBEMEN

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "Expediente X"

5

astelehena

22:15 ZINEA
 "Expediente X"

9

ostirala

22:15 ZINEA
 "Arma letal IV"

ZINEA



Expediente X

Telebistako izenburu bereko telesailaren ildotik, Mudler eta Scully FBIko agenteen abenturei buruzko pelikula da. Bi protagonisten arteko harreman sentimentala sakonago lantzen da, mundu mailako konspirazio baten atzean zer dagoen ikertzen saiatzen diren bitartean. Telesailaren jarraitzaile amorratuak direnek orain arte argitu gabeko hainbat galderen erantzuna topatu ahal izango dute.

Zuzendaria: Rob Bowman
 Antzezleak: David Duchovny, Gillian Anderson, Martin Landau.

ERROSARIO KALEKO JAIK

OSTIRALA, 2

17:30 Txupinazoa eta txafliu jaurtiketa jaien hasiera iragarritz.

18:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira.

21:15 Afari herrikoia Gabi jatatxean.

LARUNBATA, 3

10:45 Txafliu jaurtiketa.

11:30 Plaza Handiko frontoian esku pilota partiduak. Partehartzaileak: Lagunak Pilota Eskolako infantilak, Aranburu (trinketeko txapelduna Frantzian) eta Sugasti frantsesa, eta, Elgoibarko hirukote bat.

17:30 Txafliu jaurtiketa.

18:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira.

IGANDEA, 4

17:45 Txafliu jaurtiketa.

18:00 Errosario eta 'Gutziz Donea' ren erakusketa San Bartolome Parrokian eliz abesbatzarekin.

ASTEARTEA, 6

Errosarioko Amabirjinaren Bezpera

12:00 Txafliu jaurtiketa.

17:30 Txafliu jaurtiketa.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak.

18:45 Haurrentzako jolasak eta sorpresa.

ASTEAZKENA, 7

Errosarioko Amabirjinaren Eguna

12:00 Txafliu jaurtiketa.

17:30 Txafliu jaurtiketa.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak.

19:00 Errosario kaleko hildakoen omenezko meza Parrokian.

20:00 Errosarioko Amabirjinaren oinetan ohiko otoieta eta Salbea herriko hildakoen omenez.

20:30 Jaien amaiera txafliu eta traka handiarekin.

● Anti-gimnasia ikastaroa

Haizea Emakume Elkarteak 'anti-gimnasia' ikastaroa antolatu du urrian hasita. Irakaslea Jose Antonio Zuzubizkar elgoibartarra izango da. 'Anti-gimnasia' ez da hitzak adieraz dezakeen bezala, gimnasiaren kontrako ezer. Teknika honen helburua, norbere gorputza ezagutu eta arnasketa ariketen bitartez, blokeatuta egon daitezkeen gorputzeko atalak desblokeatzea da. Interesa duen edozein pertsonak 943 74 17 15 zenbakira dei dezake egutegiari eta ordutegiari buruzko xehetasunak jasotzeko.

● Kukubiltxoren 'Kukubel' ikuskizuna zapatuan, hilak 3

Udalak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak antolatutako "Euskararen Transmisio Kanpain"aren barruan, hilaren 3an, zapatua, txotxongilo saioa izango da Plaza Handian Kukubiltxo taldearen eskutik. 'Kukubel' da ikuskizunaren izenburua, arratsaldeko 16:30ean hasiko dena. Euria egingo balu Herriko Antzokian izango litzateke saioa.

TRANDAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
3	Bidasolo	Zabaleta
4	Bidasolo	Zabaleta
5	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
6	Escala	Escala
7	Bidasolo	Bidasolo
8	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
9	Anduaga	Anduaga

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

4 igandea Zabaleta



VI JES ECUADOR

Ondo pasa jaiak!

Errosario, 4 • Tel: 943 74 45 68 • Faxa: 943 74 46 05



Merino zapatak

Haurrentzako, gazteentzako eta kirolerako oinetakoak

Ondo pasa jaiak!

Errosario, 12 ☎ 943 74 07 08



Sara

Ondo pasa Errosario jaiak!

Errosario, 12 • Tel.: 943 74 35 55



ERRETXINDI

Inmobiliaria Agentzia

API 254 *Jai zoriontsuak!*

Errosario, 25 ☎ 943 74 43 58

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)
- ◆ Sukalde montatzaileak behar dira. Esperientziarekin. ☎ 943 86 14 78
- ◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita. ☎ 943 74 39 43 (Gaueko 21:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 14 13 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Neska behar da tabernako sukaldarako. Ogitartekoak egiteko. As-teburuetan. Esperientziaduna. ☎ 943 74 37 71

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauez. ☎ 943 74 27 78 (Itziar)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 40 (Estibaliz)
- ◆ Barne Merkataritzan diplomatutako neska langilea eskaintzen da Elgoibar eta inguruetan dendari lanean aritzeko. ☎ 943 74 10 09

Partikularrak

- ◆ Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 17 96
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 43 98 (Iñaki. Gauez deitu)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 943 75 50 35 (Imanol)

Bestelakoak

- ◆ Ikastolako DBHko 1. mailako neskek eskubaloian, saskibaloian eta futboleantrenatzeko pertsona bat behar dute. ☎ 943 74 29 32 (Gauzez)
- ◆ 1970. urtean jaiotakoek eta Ikastolan ibilitakoek afaria egingo dugu urriaren 31an. Izena emateko Txarriduna jatxera jo urriaren 24a baino lehen.
- ◆ Katu txikiak oparitzen ditut. Iku-si nahi duenak jo dezala helbide honetara: **Urasandiko 11 blokea, 51 portala, 3. pisua.** Lidia.
- ◆ Giltz sorta bat ahaztu du norbait **BARREN**en. 'Miami' jartzen du giltzakoan.
- ◆ 4 hilabeteko katakumea oparitzen da. ☎ 943 74 44 73
- ◆ Sehaska berria oparitzen da, zuriz tintatutako egurrezkoa. Seguritate baldintzak betetzen ditu. Koltxoirik gabe. ☎ 943 74 29 95
- ◆ Caritasek etxebizitza bat jatzeko denetik behar du. Premiazkoa da. Kotxesila bat ere behar da. ☎ 943 74 03 78/ 74 15 09/ 74 12 57

Saler osketak

◆ SALDU ◆


- ◆ Sukalderako mahai biribila salgai prezio onean. ☎ 943 74 10 42
 - ◆ Peugeot 205 GTI salgai. Estrak. ☎ 943 74 04 65 (Dani. Gauez)
 - ◆ Berrita A304 Silver Lark repetidora saltzen dut. Berria eta garantiarekin. ☎ 943 74 02 09 (Gauzez, Alberto).
 - ◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. ☎ 943 19 21 28 (gauzez)
 - ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
 - ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
 - ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)
- ### ◆ EROSI ◆
- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83

Agurak

- ◆ Zorionak **Xalba**. Urtero bezala iritsi zaizu zuri ere urtebetetze eguna. Aprobetxatu eta jarraitu orain arte bezain ondo.
- ◆ Zorionak **Iraitz** zure 11. urtebetetzean. Musu handi bat familia guztiaren partez.
- ◆ **Ane Odria Tudanca** zoriondu nahi dugu irailaren 27an 10 urte bete zituelako. Lara Urain eta It-saso Perezen partez.
- ◆ Barkatu **Maitane**, baina zorionak irailaren 24an 13 urte bete zenuelako. Inoiz ahaztuko ez dituzun lagunak.
- ◆ **Chari, Charo** eta **Rosari** zorionak bihotz-bihotzez tia M. Angelesen partetik.




◆ Zorionak **aitaxo Javi**. Beste horrenbeste bete ditzazula eta segi lasterketan parte hartzen. Musu bat denon partez.



◆ **Rosiri**, urriaren 6an urtebete zaharrago izango zarela, zorionak. Rosa izena jarri zizuten, zure usain eta freskotasunarengatik. Baina pertsona bezala oraindik hobea zara.



◆ Urriaren Sean urteak beteko dituzulako, zorionak **Chari**. Lorategi batean lore sorta hartu nuen, den-denak zuri oparitzeko eta zoriontsu izan zaitezten. Maite zaituzten zure lagunak zorionak opa dizute.



◆ **Charori**, urriaren 8an zure urtebetetzea delako, zorionak zure kuadrilaren partez. Beste horrenbeste bete ditzazula.




◆ Zorionak **Xabier Armerori** urriaren 9an 9 urte bete zituelako. Gurasoen partez musu bat. Zorionak Ion, Asier eta Unairen partez.



◆ Zorionak **Adrian** zure 4. urtebetetzean gurasoen partez.



◆ Zorionak **Alex Galarragari** irailaren 23an 21 urte bete zituelako. Familia osoaren eta bereziki lehengusu eta arrebaren partez.



◆ **Erik Luengori** zorionak bere bigarren urtebetetzean. Gurasoen eta familia osoaren partez musu handi bat.



◆ Zorionak **Hartz Borga Barriadari** urriaren 6an urteak beteko dituelako. Familia osoaren eta bereziki ama, izeba Natalia eta Jesusen partez.



◆ Zorionak **Iera Rodriguez** urriaren 6an 6 urte bete zituelako. Guraso eta ahizpa Loreren partez.



◆ **Aupa Iñigo!** Zorionak denon partez eta musu handi bat Mike-len partez. Ea noiz ordaintzen diguzun kafetxo bat!



◆ Zorionak **Ion Arreseri** irailaren 28an 6 urte bete zituelako. Anaia Iñigo eta gurasoen partez eta Anaren familiaren partez.



◆ **Iria Vicenteri** zorionak urriaren 3an 9 urte beteko dituelako. Gurasoen eta aitonen partez musu handi bat.



Examinations, Certificates & Diplomas
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE




**UNIVERSITY OF CAMBRIDGE
LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE**

**Matrikulak:
urriaren 1etik - 8ra**

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
BERGARA:	Espolon School of English ...	943 76 03 53
DURANGO:	Compubit English Institute ..	94 620 20 20
EIBAR:	Anglo-American.....	943 20 64 57
	Ukitze	943 70 25 59
	Link Idiomas.....	943 20 39 59
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Ingles	943 74 30 44
LEKEITIO:	Anglo-American Link Idiomas .	94 684 14 15
ONDARROA:	Howdy Academy	94-613 43 26
OÑATE:	A & M School of English ...	943 71 61 37

F.C.E. (First Certificate English)Abenduak 12
C.A.E. (Cambridge Advanced English).....Abenduak 10
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)Abenduak 9
TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)

ireki Berria



jaio berrientzako arropak
7 urterarteko tailak



San Frantzisko, 44
Tel: 943 74 45 83

Larunbat arratsaldeetan ere IREKITA!

ION
Jantzidenda

San Bartolome, 37 Tel: 943 74 06 27

Ferpi
40tik 64ra oiteko tailak
San Bartolome, 38
Tel: 943 74 08 15



PITXINTXU

San Frantzisko, 29 Tel: 943 74 32 06

CASA ASTIGARRAGA
Kiroiak

OSOVO
OINETAKOAK

San Frantzisko, 34 Tel: 943 74 02 35

Jantzi
Maldagan
Denda

Lois

San Frantzisko, 20 Tel: 943 74 40 98



Guk ez dugu GUGGENHEIM museoa,
baina bai ICARO eskultura. Etorri ikustera!
Goitik behera JANTZIKO zara
Elgoibarren bertan.

GARATE
Jantzidenda

San Bartolome, 13 Tel: 943 74 11 29

OASU
Erropak
opariak eta artisautza

San Bartolome 28, Tel. 943 35 02